



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
DPTO. DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

€.I.F.€..2

Euskararen Irakaskuntza: Faktoreen Eragina



GLOTODIDAKTIKA-LANAK 33

OHOKo 5. mailaren azterketa
A, B eta D ereduetan

Euskara Zerbitzua
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

GLOTODIDAKTIKA-LANAK 33

Lehen argitaraldia: 1989ko Otsaila
Ale-kopurua: 3.000

© Euskal Herriko Autonomi Elkartaren Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Wellington Dukearen kalea, 2 - 01011. Gasteiz. Euskal Herria

Imprimatzailea: Estudios Gráficos ZURE, S.A. Padre Larramendi, 2. Bilbao
Fotokonposaketa: RALI, S.A. Particular de Costa, 12-14. Bilbao.
I.S.B.N.: 84-7542-643-3
Legezko gordailua: BI-589-89

EIFE 2

Euskararen Irakaskuntza:

Faktoreen eragina

OHOk 5. mailaren azterketa
A, B eta D ereduetan



Gasteiz 1989
EUSKO JAURLARITZAREN ARGITALPEN-ZERBITZU NAGUSIA

AURKIBIDEA

	<u>Orrialdea</u>
AURKEZPENA, Jose Ramón Recalde	9
HITZAURREA, Jim Cummins	11
1. SARRERA	15
2. IKERKETAREN AZALPENA	17
3. ALDAGAIEN DESKRIBAPENA	19
4. HIZKUNTZ TESTETAKO PUNTUAZIOAK	23
5. PUNTUAZIO OROKORRA	26
6. HIZKUNTZ TESTEN EGOKITASUNA	28
7. FAKTOREEN ERAGINA: LEHEN ANALISIAK	29
8. ALDAGAIEN MULTZOKATZE-PROZEDURA	34
9. FAKTOREEN ERAGINA: AZKEN ANALISIAK	35
10. AZALPEN BATERABILDUA	46
ERASKINAK	51
– METODOLOGIA ESTATISTIKOA	53
– OINARRI INFORMATIKOA	55

AURKIBIDEA

0. AURKIBIDEA

0	AURKIBIDEA
1	HITZAURREA
15	1. SARRERA
17	2. IKERKETAREN AZALPENA
18	3. ALDAGAIEEN DESKRIBAPENA
25	4. HIKUNTZ TESTETAKO PUNTUAZIOAK
28	5. PUNTUAZIO OROKORRA
28	6. HIKUNTZ TESTEN EGOKITASUNA
29	7. FAKTOREEN ERAGINA: LEHEN ANALISIAK
34	8. ALDAGAIEEN MULTZOKATZE-PROZEDURA
35	9. FAKTOREEN ERAGINA: AZKEN ANALISIAK
46	10. AZALPEN BATERABILDUA
51	ERASKINAK
53	— METODOLOGIA ESTATISTIKOA
55	— OINARRI INFORMATIKOA

EGILEAK: J. Sierra eta I. Olaziregi, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailekoak.

AHOLKULARI ESTATISTIKOA: J. Izarra, EJIE-koa (Eusko Jaurlaritzako Informatika Elkarteak).

INFORMATIKARIA: G. Oleaga, EJIE-koa.

ESKERTZEKOAK dira laginean parte hartu duten ikasle, irakasle, inkestagile etab. Baita ere azterlanean zehar, bai kritikan, bai idazkuntzan etab. lagundu duten lankideak eta Mikel Zalbide bereziki.

AURKEZPENA

Hizkuntza ofizial bi dituen herrialdea da, ezaguna denez, Euskal Autonomi Elkartea. Izen-aitormenezko ofizialtasun hori izan-edukinez osatzeko, berriz, eginbide zorrotzak ezarriak dizkio Eusko Legebiltzarrak bertako irakas-sistemari: ikasle guztiek, beren obligaziozko ikasketak amaitzerakoan, hizkuntza ofizial bien ezaguera duin eta eragingarria eskura dezaten lortzea, besteak beste.

Irakas-sistema elebiduna eratu eta osatzea da horregatixe, bere sorra-egunetik beretik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren helburu nagusietariko bat.

Eginbehar hori ez da, ordea, begien bistan denez, gauetik goizera egin daitekeen horietarikoa: plangintza zabala eskatzen du aitzitik, hasieratik beretik, eta baliabide ugari eta ongi prestatuak irispidean izatea. Gero, gainera, xede-helburu eta baliabide horiek ongi koordinatu beharra dago, eta mamitzen diren ekintza desberdinen kalitatea ahal den gehienez zaintzea.

Horrexegatik da, hain zuzen, ebaluazio-lana hain beharrezko eta baliagarria. Urteak darama Sail honek, EIFE ikerprogramaren bidez, Autonomi Elkarteko ikasleak zer-nolako euskara— eta erdara-mailak lortzen ari diren aztertzen, eta ezaguera-maila horietan zein faktorek eta zer neurritan eragiten ari diren estudiatu nahian. Arnas zabaleko ekinaldi horren emari da, nolanahi ere, eskuartean duzun EIFE 2 ikerlanaren aurkezpen-idazki laburbildu hau. Badaki Sailak bertan eskaintzen diren emaitzak ez direla inondik ere behinbetiko epai-iturri, jardunaren jardunaz zehaztu eta hobetu beharreko datu-azalpen eta gogoeta-gai baizik. Hori bezain jokamolde desegokia litzateke, ordea, urterik urteko jardun saiaturaz eskuratzen ari garen ondorio eta datuok besterik gabe bazter izkutuan alboratzea. Beren mugatu eta sotilean ere euskal irakas-sistema ematen ari den aurrerapausoez argibide zentzuzkorik eskaintzen digute, aitzitik, eta on da, hortaz, jasotako datu-emaitza horien berri ematea. Euskal Autonomi Elkarteko irakasmundua elebitasun-moldera egiten ari den zaharberritze-saioaren lekuko ohargarria da berau, nondik norakoaren perspektiba eskuratzen lagun diezagukeena: behar-beharrezkoa da hori, jakina, ematen ari garen urrats-pausoez garaiz jabetzeko eta, ondo emandakoez pozteaz batean, gaizki emanikakoak zuzentzeko.

Ez da betebehar gozo eta arina euskal gizarteak bere eskolari —berariaz eta ohizko xede-helburuen gehigarri— egotzi diona. Gaizki egingo genuke horrexegatik, batzuek eta besteok, sendagai mirarizkoaren bila abiatuz erraxkeriaren osinean jausiko bagina: ondo kostata lortu dira oraindainoko emaitzak, eta ez dago arrazoi sendoegirik aurrerantzean eman beharreko pausoak aurrekoak baino zinez samurragoak izan daitezkeela uste izateko. Arrazoi bi daude, besteak beste, zailtasun horiek begien bistatik ez apartatzeko. Batetik, irakasmunduan aski gizarte-onarpen zabaleko neurriak hartu

nahi direnean ere hezkuntz sistemaren beraren zurruntasun-inertziak ohargarri eta astunegiak gertatu ohi direlako sarri bapateko berrikuntza luze-zabaletan sinestu ahal izateko. Eta, bestetik, hezkuntza-munduak pauso ausartak emanik ere bere ahalegina ez delako aski: beste gizarteguneetan ere euskaigintzari sendo eragin beharra dagoela ikusten da, alegia, euskal gizartearen elebitasun-formula eskola-ume(txo)en albo-gertaera bihurtzea nahi ez badugu.

Itxaropen kilikagarri errazegietatik aldentzea komeni zaigu beraz guztioi, halako neurri batean bederen, nahi eta ezinaren etengabeko zurrunki-loak irents gaitzan nahi ez badugu.

Hori bezain kaltegarria genuke, ordea, leporatua dugun zamaz oharturik etsipen-giro itsuan amiltzea. Eginkizuna bait dugu, eta ez halabeharrezko ezinkizun, irakas-sistema elebidun eragingarri bat eraikitzea: beste hainbat herrialdek kurritua du hain zuzen, gure aurretik, ibilbide hori; eta ez dira gutxi begiz jotako helburua garaipen ernagarritz jadanik eskuratua dutenak. Garbi ikusten da, beraien esperientzietan, ele biko irakaskuntza errealitate emankor eta kalitatezkoa izan daitekeela; eta argi dago, orobat, hartan zereginik duten erakunde, giza elkarte eta norbanakoen eginahala ongi bideratzen asmatuz gero gogobetezko emaitzak lortzen direla. Euskal Autonomi Elkarteko irakas-sistemaren elebitasun-xedeaz Hezkuntza Saila bultzatzen ari den ikerketagintza ere hasia da bere lehen argi-izpiak eskaintzen: EIFE 1 eta 2 ditugu batetik, dagoeneko ibilitako bide horren erakusgarri; eta hor dago gainera, jadanik, aurrerabidean ari den EIFE 3 azterlana. Eta, egia esateko, ez dirudi bertatik jasotzen hasiak garen lehen emaitza horiek elebitasun-bide horren etsigarri direnik: ondorio sendorik eskura daitekeela —eta bidea posible dela, hortaz— adierazten digute emaitzak, izan ere, beren hainbat zertzeladatan. Bidea emankorra gerta dadin, hori bai, zenbait baldintza ondo aintzakotzat hartu beharrekoak direla gogorarazten digute emaitza-azalpen horiek. Badago, hortaz, zertan eta zergatik itxaropen izan.

Aurrera begirako hitz biz eman nahi nioke, azkenik, hitzaurre honi amaiera. EIFE saileko ebaluazio handi, orokor eta aukeran sofistikatuok Autonomi Elkartearen irakas-sisteman hizkuntza ofizial bien ezaguerak gaur egun ageri duen batezbesteko ikuspegia eskaintzen digute. Merezi luke ordea, horrekin batean, ezarpen-eremu mugatuagoko neurketa-lanak ere egitea: banakako ikastetxeetan, adibidez, lekuan lekuko aurrerapausoez eta hutsuneez jabetzeko, besteak beste, eta ikastetxe bakoitzak berakabuz diseinaturiko plana nola mamitzen ari den ezagutzeko. Ezarritako baliabideei etekin emankorrik aterako bazaie aldian aldiko neurketa-lan horri ekitea merezi duelakoan dago, komentzimendu osoz egon ere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

*José Ramón Recalde
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua*

HITZAURREA

Jardungai akademiko moduan orain hogeit bat urte plazaratua badugu ere askozaz lehenagotik datorkigu hizkuntz plangintza: zibilizazioaren ataritik beretik eginahal horretan arituak dira, izan ere, agintariak. Ia gizarte orotan, alegia, berariaz saiatu izan da bertako Agintaritzak lekuan lekuko hizkuntza eta hizkera-molde jakinen statusa, funtzioak eta erabilbide konkretuak era batera edo bestera antolatzen. Hizkuntza edo hizkera-molde bi edo gehiago elkarren pegante dauden gizarte-inguramenduetan berez bezala suertatzen da hizkuntz plangintzan jardutea. Etnitalde desberdinek nork bere hizkuntza propioa erabiltzea gerta daiteke halakoetan, edota talde batek eginkizun desberdinetarako hizkuntza desberdinak erabiltzea (gogoratu, adibidez, kristau-gizarte askotan orain puntturarte erlijio kontuetan nola latina erabili izan den).

Agintean dagoenak bakarrik bideratu ahal izaten zuen eta izan ohi du normalean, esandako horrexegatik, era bateko edo besteko hizkuntz plangintza: berak arautu izan du hortaz, historian zehar, zein hizkuntza zein funtziotarako indartu eta horrela, bide batez, ekonomia eta politika alorreko aginpidea nola sendotu. Jardupide horren harian behin baino gehiagotan suertatu izan da hizkuntza batzuk galtzaile irtetea: hortik sortuak ditugu hain zuzen, European eta Europatik kanpora, galtzeko arrisku larrian dauden "lesser used languages" direlakoak (hots, eremu urriko hizkuntzak). 1960 eta 70eko hamarkadetan Mendebaldeko herri askok politika eta gizarte mailan izandako aldaketen eraginez, halere, ordurarte ez bezalako garrantzia eman zaie gizarte- eta hezkuntz berdintasunei, eta eremu urriko herri horien kultura eta hizkuntzei balio berria aitortu zaie. Hori dela-eta, bai European eta bai Ipar Amerikan nolabaiteko onarpen-maila eskaini zaio eremu urriko hitzun-herri horien izateari, beren izaera horretan bizirik irauteko duten eskubidea aitortzera iritsiz.

Ahalegin saiatuan ari dira ondorioz, zenbait herri eta eskualde, arrisku-puean dituzten beren hizkuntza horiek biziberritu asmoz eta menderik mendeko beren kultur ohitura jatorrei balio-indar eguneratua txertatu nahirik: asaba zaharren baratzari irmo eusten saiatzen dira, bai bait dakite horixe dutela beraien bizi-iturri. Hartan ari zaizkigu, Europako adibideetara mugatuz, euskaldunak, katalanak eta gailegoak Espainian, euskaldunak eta bretoinak Frantzian, frisiarrak Herbehereetan, *welsh* eta *scottish* gaelikarrak Britainia Handian eta *irish* gaelikarrak Irlandan.

Hizkuntza bat ezabatzea baino dezentez zailagoa da, ordea, hizkuntza hori berori suspertu eta berriro indartzea. Arrazoi sendorik ere egon ohi da, jakina, emendiozko zailtasunok horrela agertzeko: menpeko giza-taldeek hizkuntza propioa ezabatze hori giza eskubideekiko errespetu eta miramentu handirik gabeko jokamolde jeneralago baten altzoan nozitu izan da. Gizarte demokratikoetan aldiz, oinarritzko giza eskubideak babes-turik dauden gizarte-moldeetan alegia, jendearen gogoz kontra ezin hiz-

kuntz plangintzazko erabakirik goitik behera ezarri ahal izaten da. Euskal herrian eta Irlandan bezala Herri Aginteeek bertako hizkuntza biziberritu nahi izaten duten kasuetan, horregatik, hizkuntz plangintzaren jarduera arras lanbide delikatua bihurtzen da, bertako biztanleen gehiengo batek onenean ere hizkuntza propioaren ezaguera mugatu bat duenez. Biztanle-go osoaren adostasunaz baizik ezin bideratu izaten dira, honelakoetan, jendeak hizkuntza hori ikasteko bultzagarriak eta ikasi dutenentzako ordain-sariak.

Ordain-sari horiek handiegiak badira, berriz, hizkuntza hori ikastera iritsi ez den biztanle-gehiengoak diskriminaziotzat hartuko ditu. Kontrako jarrerak piztuko ditu horrek bertako hizkuntza biziberritzeko egiten diren ahalegin horiei buruz, eta susperraldi osoa hankaz gora botako. Bertako hizkuntza indarberritzeko Herri Aginteeek bidera dezaketen etengabeko ahalegin osoa hizkuntza horren aldeko jarreretan oinarritu behar izaten da, hortaz, eta horren menpeko gertatzen.

Laburbilduz, esan liteke eginbehar korapilotsu bikoitza, eta ez bakarra, dutela aginte-alorreko plangileek: batetik hizkuntza suspertzeko eragin-indar handiena zein jardupidek duen ikusi behar izaten dute; baina, beste aldetik, neurri mugatuan baizik hizkuntza hori ezagutzen ez duen biztanle-gehiengoa beregandik uxatzeko arrisku txikiena zein jardupidek duen aztertu behar ere izaten dute.

Historian zehar bai eremu urriko hizkuntzak ezabatzeko eta bai berauek biziberritzeko baliabide-indar nagusia irakas-sistema izan dela pentsatu ohi da. Hala izan ere da, gutxienez, Irlandan eta Euskal Herrian. Luze-zabaleko azterketa soziolinguistikoko batek (Committee on Language Attitudes Research, 1975), adibidez, ondorio hau agertu zuen Irlandarako: irlanderraz hitzegiteko gaitasuna, eta eskola-aldia amaitu ondoan berau erabiltzekoa, oso gogor loturik zeudela eskola-garaian irlandera zenbat urtez eta zer intentsitatez eman zenarekin. Konkretuki, partez edo osoz irlanderazko ikaskuntzak egin zituztenek hamar aldiz probabilitate handiagoa ageri zuten ondoren irlanderraz barra-barra jarduteko irlandera asinatura gisa soilik hartu zutenek baino. Irlanderazko mintzagaitasun honek ez zion, gainera, beren ama-hizkuntza ingelesean ohizko garapen akademikoa lortzeko kalterik egiten (ikus Macnamara, 1966; Cummins, 1977).

Euskal Herriko EIFE azterlanek emaitza-eredu berdina ageri dute funtsean. D eta B ereduetaiko ikasleak ondotoz hobeto maneiatzen dira euskaraz A eredukoak baino. Eta, aitzitik, gaztelaniazko manejuan oso diferentzia txikiak ageri dituzte eredu desberdinetako ikasleek, nahiz eta D eta B ereduetaiko ikasleek A eredukoek baino askozaz ikasketa-ordu gutxiago jaso gaztelaniaz. Eremu urriko hizkuntzan eskuratzen den gaitasun akademikoa eremu zabaleko hizkuntzara transferitze hori geroz era sendoago frogaturiko emaitza da nonahi: Ipar Amerikan (adibidez Kanadako inmertsio-ikasbide frantsesetan) martxan jarritako ia ikasprograma guztietan emaitza hori berori jaso da.

Gaitasun akademikoen interdependentzi eredu honek, gaitasunok hizkuntza batetik bestera transferituz, bizi-arriskuan dauden hizkuntzak indarberritu nahi dituzten hizkuntz plangileentzat arras eragimen sakona duela deritzat. Horrek honako hau esan nahi bait du, besteak beste: haurrak

elebitasun-eragin handiko irakastereduetan (B eta D ereduetan) eskolatzek ez diela berez ikasle horiei beren ikasketa-alorreko garapen akademikoan atzerapenik sortzen. Alderantziz: geroz eta jakitate-oinarri sendoagoz esan daiteke haurrak hizkuntza bietan ahoz eta idatziz jarduteko gaitasuna lortzen dutenean beren hizkuntz gaitasuna eta ezaguera-trebetasuna hobetu egiten dutela bere batezbestekoan. Beren ideak adierazteko mintzabide bi dituztelarik, eta ez bakarra, barruagotik ulertzera iristen dira bai hizkuntzak berak nola funtzionatzen duen eta bai hizkuntza nola erabil dezaketen, modu eraginkorrago batean, problemak konpontzeko eta sormen-pentsakeraz jarduteko.

Argi dago orobat, herrialde desberdinetan egindako azterlanen ondorioz, bigarren hizkuntzak soil-soilik asignatura moduan irakatsiz eragin ahula lortzen dela elebitasuna lortzeko xedean. Ikasleek beraiek etsi egiten dute sarri, eta aspertu ere egiten dira, hizkuntza horretan ahoz zein idatziz jarduteko ez bait dira gai bihurtzen ari. Ez dago dudarik A ereduak hobetu daitekeela. Garbi dago, ordea, hobekuntza-bide horren nondik norako nagusia: hartarako irakaslerik eskueran legokeen neurrian asignatura bat gutxienez, eta posible balitz gehiago, euskaraz irakastea komeniko litzateke.

Mereziko du agian hizkuntz plangintzari buruzko azken puntu bat azpimarratzea. Irakas-sistemak han eta hemen finantzazko estualdian ageri diren garai honetan badirudi hizkuntz plangintzaren alderdi ekonomikoak ere aintzakotzat hartu beharrekoak direla. B eta D ereduak ez dute A ereduak baino kostu-behar handiagorik; emaitzak, aldiz, nabarmenki hobeak dira. Kostu aldetiko etekin hobeak dute, beraz. Beste hitzetan esanik: euskara asignatura gisa soilik irakasten jarduteak berez urriak diren dirubideak itxuratzarki eralgitzea lekarke berekin.

EIFE 1 eta EIFE 2 azterlanen bidez egindako ikerketa bikainak munduko beste herrialdeetan jasotako ondorioekin zeharo bat datozen emaitzak lortu ditu. Oinarri sendoa eskaintzen dute horiek irakasmunduko hizkuntz politika funtsatzeko.

Politikagileek eginbehar jakina dute aurrez aurre: euskararen susperraldia benetako posibilitate bihurtzen ari den euskarazko irakaskuntza indartzeko ahaleginean gogor eustea. Funtsezkoa da eginahal hori orain bideratzea, biztanle-gehiengoak hain euskararen aldeko jarrera sendoak ageri dituen eta D nahiz B irakastereduek beren eragin-indarra hain garbi frogatua dutenean.

Jim Cummins
The Ontario Institute for Studies in Education
Toronto, Ontario
Canada

ERREFERENTZIAK

- Committee on Language Attitudes Research (1975), *Report*. Dublin: Stationary Office.
- Cummins, J. (1977), A comparison of reading achievement in Irish and English medium schools. In V. Greaney (ed.) *Studies in reading*. Dublin: Educational Company of Ireland.
- Macnamara, J. (1966), *Bilingualism and primary education*. Edinburgh: Edinburgh University Press.

1. SARRERA

EIFE izeneko ikerlana 1983-84 ikasturtean hasi zen mamitzen. Ebaluazio-proiektu handi bat zen EIFE 1 hura: euskara eta gaztelania neurtu zitzaion hiru irakasteredu elebidunetako ia 2.000 haurri.

Urte hartan jasotako datuen azterketak bere denbora eraman zuen eta, azkenik, 1986ko maiatzean ikerketa-lanaren laburpen gisako liburuska bat argitaratu zen. Informazio guzti hura, martxan jarri berria zen irakas-sistemaren euskalduntzearen lehen «ebaluazioa» izan zen. Bertan erabili ziren neurketa-tresnak ere esperimentatzen ari ziren momentu haietan. Bitarteko estatistiko eta informatikoetan, berriz, esperientzia berria izan zen halako informazio-kopuru handi bat maneiatzea hezkuntz ebaluazioaren alorrean.

Orduan OHOk 2. eta 5. mailak aztertu ziren. EIFE 1 hartan 2. mailan zeuden ikasleak orain, hiru urte beranduago (1986-87 ikasturtean alegia), 5. mailan ebaluatu dira EIFE 2 deitutako azterlan honen bidez. Laginketa eskola berberetan egin da eta, ahal izan den guztietan, orduko ikasle berak hartuta. Ikasleren bat falta zenean gela bereko beste bat hartu izan da. Horrela, ikasle-talde beraren eboluzioa ezagutzeko aukera izan da.

Bestalde, 1984ean hankamotz gelditu zen B ereduaren azterketa, oraindik 5. mailara iritsi gabeak bait ziren eredu horretako ikasle-talde handi eta adierazgarriak. Oraingo azterlan honen ekarpen interesgarrienetako bat hori da: B ereduaren aurrerabidearen berri ematea.

Gainerakoan, EIFE 1eko metodologia beretsua erabili da funtsean bigarren zati honetan ere, orduko hutsune batzuk konponduz eta lan-prozedura guztia finduz: inkestagileen prestakuntza eta jarraipena hobetu egin dira, grabazio-fasean ere denbora luzea igaro da akatsak zuzentzen eta, azkenik, informatika bidezko analisi estatistikoetan prozedura berriak urratu dira.

Faktoreen eraginari buruz EIFE 1ean esandakoa baieztatu egin da, orohar, baina oraingoan era zehatz eta fidagarriagoan emanda.

Azkenik gogoratu behar da ebaluazio-lan hau errealitate aldakor baten baitan egiten ari dela. Euskararen presentzia xume batetik abiatuta, ia ikastoletan bakarrik hasieran, eredu elebidunak lurra irabazten doaz urterik urte: euskararik ikasi gabe zeuden haurrak (X eredu) ia desagertu dira; nagusiki gaztelaniaz ikasten dutenak (A eredukoak) dira talde handiena, baina gutxitzen hasiak dira; B eredu, hizkuntza bietan irakasten duena alegia, eredu berriena izan arren hazten doa erritmo azkarrean eta D eredu (nagusiki euskarazkoa) ere zerbait haziz doa. Ikus dezagun, adibidez, OHOk 5. mailan gertatzen ari den eboluzioa, ehunekoetan emana.

	A	B	D	X
1983-84 (EIFE 1)	% 67.2	% 4.3	% 14.8	% 13.7
1986-87 (EIFE 2)	% 70.7	% 10.4	% 18.3	% 0.6
1988-89	% 63	% 16.5	% 19.8	% 0.7

Joera hau, ordea, ez da gelditu. Eskolaurrera begiratzuz, izan ere, gero eta nagusiago ageri dira B eta D ereduak. Honelako aldaketa bizkor batean ebaluazioak esanahi berezia hartzen du, bai euskararen eta bai gaztelaniaren ezagutza ziurtatu behar duen irakas-sistema batean. Eta aldi berean, lortutako datuak behin-behinekoak direla aitortu behar da, aldakuntza honetako momentu bati dagozkionak, baina urratzen ari garen bidea hobeto ezagutzen laguntzen digutenak.

2. IKERKETAREN AZALPENA

LANAREN XEDEAK

Lanaren xede nagusia EIFE 1 lanaren jarraipena egitea izan da. Eta, zehazkiago esanda:

a) Irakasteredu desberdinetan (A, B eta D ereduetan, alegia) OHOk 5. mailan ikasleek duten euskara- eta gaztelania-maila neurtzea.

b) Hizkuntza horien ikaskuntzan eragiten duten faktoreen azterketa ahalik zehatzena burutzea.

c) Oraingo datuak (1987an jasoak) lehendik (1984etik) ditugunekin konparatzea, bai hizkuntz ezaguerari dagokionez eta bai irristakorragoa den faktoreen eraginari dagokionez.

d) Interes berezia hartzen du B ereduaren azterketak, eredu aski berria izateagatik aurreko ikerlanean OHOk 2. mailan bakarrik aztertu bait zen.

LAGINA

EIFE 1ean OHOk 2. mailan egindako lagin orokorra erabili da orain 5. mailan. Hau da, orduko ikasgela berberak hartu dira eta baita ikasle berberak ere ahal izan den guztietan. Ikasle horietariko batzuk, aski normalean denez, ez zeuden orain ikastetxe horietan. Arazo hau konpontzeko gela bereko beste ikasle bat hautatu izan da, zoriz.

Lagina, beraz, orduan bezala estratifikatua, proportzionala eta azken etapan zorizko sinplea izan da. Guztira 586 haur zituen lagin honek, 167 gelatan banatuak. Hona, ereduka, lagin hori nola atalkaturik dagoen:

- A ereduko 116 ikasle
- B ereduko 235 ikasle
- D ereduko 235 ikasle

A ereduko lagin txikiagoa hartu zen, eredu aski uniforme delako, eta ongi ikusten da bai EIFE 1, bai EIFE 2ko datuetan.

HIZKUNTZ TESTAK

Ikasleen euskara- eta gaztelania-mailak neurtzeko erabili diren probak EIFE 1ean erabilitako berberak izan dira. Hizkuntz test hauek hizkuntzaren oinarritzko lau trebetasunak neurtu nahi dituzte, esan nahi bait da: ahozkoaren ulermena, mintzamina, irakurmena eta idazmena. Testak, azken finean, jadanik argitaratuak dauden «Galbahe E2» eta «Galbahe C2» izenekoak dira funtsean, «Galbahe 1»eko bi azpiproba erraz gehituta. Hona hemen azpiproben izenak eta edukinak, testean datozen ordenan emanak:

– Ahozkoaren ulermena 1: inkestagileak ozenki irakurritako esaldiei dagozkien marrazkiak aurkitu behar dira, lau aukeraren artean.

– Ahozkoaren ulermena 2: aurrekoaren antzekoa, esaldi piska bat zailagoekin.

– Ahozkoaren ulermena 3: aurreko bien antzekoa, esaldi are konplikatuagoekin.

– Irakurmena 1: idatzitako esaldi batzuri dagozkien marrazkiak aurkitu behar dira.

– Irakurmena 2: amaitu gabeko esaldiak osatu behar dira, lau aukeraren arteko bat bereziz.

– Idazmena: sei marrazkiko istorio mutu batean oinarrituta ipuin bat idaztea.

– Mintzamena 1: marrazki batzuri buruzko galdera sinpleak erantzun behar dira.

– Mintzamena 2: sei marrazkiko istorio mutu bat ikusirik, ipuin bat kontarazi eta grabatu egiten zaio haurrei.

Testaren aplikazioa kolektiboa da, mintzamenezko zatian izan ezik: zati hori banan bana pasatzen zaie haurrei.

Gaztelaniazko frogak paraleloak dira: Comprensión oral 1, 2 eta 3, Lectura 1 eta 2, Escritura, Expresión oral 1 eta 2.

GAINERAKO ALDAGAIK

Haur bakoitzak euskaraz zein gaztelaniaz lortzen duen hizkuntz gaitasunaren arrazoi nagusiak bilatu nahirik, beste hainbat datu ere jaso dira: haurraren etxeko hizkuntz harremanak, familiaren maila soziokulturala, kaleko hizkuntz harremanak, gurasoen jatorria, haurraren gaitasun pertsonalak, hizkuntzarekiko dituen jarrerak, ikastetxe-mota, berau kokatua dagoen zona soziolinguistikoa, hizkuntzekiko datu metodologikoak, irakaslea, bere esperientzia, espektatibak, euskaltasuna, etab.

ANALISI ESTATISTIKOAK

Jasotako informazio-kopuru handi horien grabazio eta tratamendurako Eusko Jaurlaritzako Informatika Elkartearen (EJIE) zerbitzu estatistiko eta informatikoak erabili dira.

Hizkuntz testen diskriminagarritasuna eta fidagarritasuna aztertzeko item-analisia egin da, «Anitem» izeneko programaz. Bariantzaren analisi desberdinak, berriz, SPSS-X pakete informatikoa erabiliz egin dira.

Prozedura informatiko eta estatistikoez xehetasun gehiago ezagutzeko, ikus ERASKINAK (51. or.).

3. ALDAGAIEN DESKRIBAPENA

Jasotako datu guztien artean, adierazgarri gerta daitezkeen batzuk aukeratu dira deskribatuak izateko:

FAMILIAREN MAILA SOZIOKULTURALA

Familien maila soziokulturalaren berri jakiteko, hartaz zuten eritzia galdetu zitzaizen irakasleei. Beraz, estimazio bat da; baina, hala ere, esan liteke errealitatea isladatzen duela orohar. Familia gehienak erdiko mailetan kokatzen dira. Ereduka badirudi Dkoek zertxobait maila altuagoa dutela batezbestean.

AMAREN EUSKARA


D ereduko haur gehienek amak euskaldunak dira (% 70 inguru). A ereduan, berriz, euskaraz dakitenen kopurua oso txikia da. B ereduan ere gehiengoak ez daki euskaraz, baina bada hitzegiten edo ulertzen duen multzo polita ere. Aitaren kasuan, datuak berdintsuak dira.

HAURRAK AMAREKIN

A ereduko ia-ia haur denek gaztelaniaz hitzegiten dute amarekin. B ereduko gehiengo luze batekin ere berdin gertatzen da. D ereduan, berriz, beti edo gehienetan euskaraz aritzen direnak gehiengoak dira.

FAMILIAKO HIZKUNTZA, D EREDUAN

D ereduko famili barneko (hots, etxeko) hizkuntz harremanak sakonago aztertu dira, hor aurkitzen bait da neurri handi batean hizkuntzaren transmisioaren giltza.




Lehenik, senar-emazte biak euskaldunak zenbat diren jakin nahi izan da. Ikusten denez, kasu honetan daude D ereduko familien erdia *. Har ditzagun orain senar-emazte euskaldun horiek, eta ikus dezagun beren artean hitzegiterakoan nola jokatzten duten.

Irudian ikusten denez, senar-emazte euskaldun horien erdiak inguru beti edo gehienetan euskaraz hitzegiten du. Beti edo gehienetan gaztelaniaz egiten dutenak, berriz, % 20a badira. Bi hizkuntzetan berdintsu aritzen direnak ere baditugu tartean. Egoera honetan, aski ezaguna da beren artean erdaraz eta haurrari euskaraz hitzeginaz jarduten duten senar-emazteen fenomeno.

IRAKASLEAREKIKO JARDUNA, GELATIK KANPORA

Diferentziak nabarmenak dira eredu batetik bestera, baina aipagarria da B ereduan sumatzen den eboluzioa. EIFE 1ean gela hauetan berbertan % 23k bakarrik hitzegiten zuen beti euskaraz irakaslearekin OHO-ko 2. mailan; orain, berriz, kopuru hori ia % 60ra igo da.



ESKOLAKO LAGUNEKIKO JARDUNA

Argi ikusten da aldagai honetan gaztelaniaren indar soziologikoa. D ereduan beti euskaraz aritzen direnak erdiak inguru dira. B ereduan gaztelania da nagusi lagunen artean, eta A ereduan hizkuntza bakarra da berau.

* Datu hauek haurrek beraiek emandako erantzunetatik aterak dira.

ZONA SOZIOLINGUISTIKOA

Bost zona soziolinguistiko desberdin berezi dira: 1etik 5era sailkatu-rik, erdaldunenetik euskaldunenera. Lagineko haur-kopuru handiena 1. zonan dago. Horiek dira zona poblatuen eta erdaldunenak. A ereduak, bistan da, zona erdaldunenetan aurkitzen da. B eta D ereduak, ostera, zona soziolinguistiko guztietan daude.

BESTE DATU BATZUK

Hauezaz gainera beste datu gehiago ere jaso ziren inkesta egitera-koan, hala nola:

- Euskara jakintzagai moduan astean zenbat orduz ematen den.
- Ikasleen euskara-maila, irakaslearen eritziz.
- Irakaslearen gaztelania-maila, irakaslearen eritziz.
- Euskarazko nota, aurreko ikasturte-amaieran.
- Gaztelaniazko nota, aurreko ikasturte-amaieran.
- Ikasleen errendimendu eskolarra, irakaslearen eritziz.
- Sexua.
- Gurasoen jatorria.
- Txikitan zein hizkuntza erabiltzen zuten.
- Auzoko lagunekin erabiltzen duten hizkuntza.
- Auzoko edo kaleko jende helduarekin erabiltzen duten hizkuntza.
- Gustoko irakurketak zein hizkuntzatan egiten dituzten.
- Telebista zein hizkuntzatan ikusten duten.
- Etxean euskal prentsarik erosten duten ala ez.
- Bere burua euskalduntzat duten ala ez.
- Bere eritziz euskarazko klase asko edo gutxi dituzten.
- Eskolan euskara ikastera iristeko duten itxaropen-maila.
- Euskararekiko jarrera: 10 itemeko bateria (orokorki oso positiboa).
- Gaztelaniarekiko jarrera: 10 itemeko bateria (orokorki positiboa).
- Adimen-koefizientea: Catell-en G faktorea, 2. eskala.
- Ikastetxe-mota: publiko, pribatu, ikastola.
- Gela hori eredu aldatu ote den.
- Gelako haur-kopurua.
- Euskara-irakaslea euskaldunberria den ala ez.
- Irakasleak EGARIK ba ote duen.
- Irakaslearen esperientzi urteak lanjardun horretan.
- Irakaslearen itxaropen-maila ikasleen euskarari buruz.

B eredua, berriena izanik, modu eta intentsitate desberdinez aplikatzen da gaur egun ikastetxeetan (ikus EIFE 1 eta PIR-5 * testa). Gainera, beste ereduak ez dituzten ezaugarriak ditu berekin. Horregatik, eredu honi buruzko datu gehiago jaso ziren. Adibidez:

GELAKO LANA ZENBATERAINO EGITEN DEN EUSKARAZ

B ereduan egun-erdia edo euskaraz egiten dute gehienek; baina bada talderik gehienbat euskaraz lan egiten duena; bada aitzitik beste bat, txikiagoa, eguneko lanaren erdia ere euskaraz egiten ez duena.

GELAN EUSKARAZ ZENBAT IRAKURTZEN DEN

B ereduan, eta OHOk 5. mailan, batezbestean gutxi samar irakurtzen da euskaraz, hitzegiten denarekin konparatuta.

B EREDUKO BESTE DATU BATZUK

Beste datuok ere jaso dira:

- Euskarazko saio intentsiboa egiten ote den, eta zenbateko iraupena duen.
- «Hizkuntza bat - irakasle bat» banaketa egiten ote den (gehienek ez).
- Matematika zein hizkuntzatan irakasten den (gehienek gaztelaniaz).
- Gizarte-gaiak zein hizkuntzatan irakasten diren (gehienek euskaraz).
- Irakurketa-idazketak zein hizkuntzatan ikasi zituzten (ia denek gaztelaniaz).


* I. Olaziregi, J. Sierra. «PIR-5 hizkuntz testa». Eusko Jaurlaritza. Vitoria-Gasteiz, 1987.

4. HIZKUNTZ TESTETAKO PUNTUAZIOAK

Hona hemen euskarazko probetan ateratako batezbestekoak eta desbiderapenak:

	A eredia		B eredia		D eredia		
	$\bar{X}$	S	$\bar{X}$	S	$\bar{X}$	S	
Ahozkoaren ulermena 1	6.88	1.97	9.66	0.77	9.97	0.21	(10etik)
Ahozkoaren ulermena 2	3.00	1.97	7.95	1.84	9.38	0.80	(10etik)
Ahozkoaren ulermena 3	2.31	1.52	6.65	2.43	8.49	1.36	(10etik)
Irakurmena 1	1.76	1.76	5.84	2.30	7.74	1.83	(10etik)
Irakurmena 2	2.85	1.49	6.25	2.39	8.50	1.49	(10etik)
Idazmena	12.04	7.48	28.21	8.75	39.94	7.01	(60tik)
Mintzamina 1	2.94	2.22	7.44	2.23	9.62	0.67	(10etik)
Mintzamina 2	11.37	8.62	32.06	10.88	44.35	7.01	(60tik)

Proba guzti hauen batezbestekoak grafiko batera pasatuz, begiratu bakar batez ikus ditzakegu bai eredu bakoitzaren emaitzak eta bai 1984ean, EIFE 1ean alegia, A eta D ereduak lortutakoak. Ikus dezagun, hortaz, baterabilduzko azalpen hori*:



Ikusten denez, Ahozkoaren Ulermena 1 eta Mintzamina 1 kenduz gero froga gehienak zailak dira A ereduarentzat.

D eredurako, berriz, proba asko errazak gertatzen dira. Proba konplexuenak dira ongi neurtzen dutenak: Idazmena, Mintzamina 2 eta Irakurmena 1.


B ereduan, azkenik, proba gehienak aski diskriminagarriak dira.

* 60rainoko puntuazioa duten probak (Idazmena eta Mintzamina 2) 10eko heinean agertarazi dira grafikoan. Beste hainbeste egin da gaztelaniazko Expresión escrita eta Expresión oral 2ekin.

Gaztelania neurtzeko probek, berriz, honako emaitza hauek eskaini dituzte:

	A eredua		B eredua		D eredua	
	$\bar{X}$	S	$\bar{X}$	S	$\bar{X}$	S
Comprensión oral 1	9.91	0.28	9.79	0.44	9.85	0.39
Comprensión oral 2	9.62	0.58	9.48	0.78	9.01	0.94
Comprensión oral 3	7.92	1.47	7.63	1.62	7.65	1.63
Lectura oral 1	8.68	1.45	8.51	1.53	7.68	2.10
Lectura oral 2	7.16	1.57	6.95	1.23	6.70	1.33
Expresión escrita	46.01	6.58	43.17	6.94	39.99	7.26
Expresión oral 1	9.82	0.37	9.77	0.51	9.31	0.97
Expresión oral 2	47.71	5.26	46.90	6.34	45.45	5.49

Bistan da hiru ereduak bateratsu dabiltzala proba guztietan. D ereduak zerbait atzerago ageri da, baina oso diferentzia txikiaz. Proba batzuk errazegiak dira, dudarik gabe, esaterako Comprensión oral 1, 2 eta Expresión oral 1; baina, bi hizkuntzetan proba paraleloak izatearren, bere horretan mantendu dira.



A ereduak euskaraz lortzen dituen emaitzak aski baxuak dira, eta ez dira hobetu aurreko 5. mailakoan egindako neurketatik. Jaitsi ere jaitsi dira zertxobait puntuaziook, baina kontuan hartzekoa da orduko A ereduak 5. mailan euskaldun gehixeago zegoela orain baino, eta horrek orduko puntuazioak zerbait igo egiten zituela.

D ereduaren puntuazioak piska bat igo egin dira, baina diferentziak ez dira beti adierazgarri eta esanahitsuak.

B eredua, berriz, lehenengo aldiz neurtu da 5. mailan. Ikusten den bezala beste bi ereduaren erdian gelditzen dira puntuazioak, baina D eredu-tik hurbilago.

Gaztelaniazko puntuazioak askoz ere uniformeagoak dira: A eta B ereduak parean agertzen dira, eta Dkoak apur bat beherago. EIFE 1-eko puntuazioak berdintsuak ziren: A ereduaren bakarrik ikusten da EIFE 2koak zertxobait gorago daudela.

5. PUNTUAZIO OROKORRA

Proba guztien puntuaziook integratzeko formula egiterakoan, barialitate-koefizientean oinarritu gara:

$$P.O. = \frac{S1/\bar{X}1 * X1 * 100/R1 + S2/\bar{X}2 * X2 * 100/R2... + Sn/\bar{X}n * Xn * 100 /Rn}{100}$$

P.O. = euskara-mailaren puntuazio orokorra

S = desbidazioa

$\bar{X}$ = batezbestekoa

X = probako puntuazioa


R = heina (rangoa)


Talde desberdinen emaitzak kontuan hartu dira, baina batez ere jatorrizko hitzunenak. Horrela, azkenean, bi hizkuntzetarako balio dezakeen ponderazio-formula bakar bat eraiki da.

$$P.O. = 0,02 * AU1 + 0,07 * AU2 + 0,17 * AU3 + 0,19 * I1 + 0,19 * I2 + 0,16 * IDA + 0,05 * MI1 + 0,13 * MI2$$


Hona hemen bide horretatik ateratako puntuazio orokorrak:

		Euskara	
		$\bar{X}$	S
E R E D U A	A	23.17	11.42
	B	59.96	16.92
	D	79.04	8.71





		Gaztelania	
		$\bar{X}$	S
E R E D U A	A	79.81	7.99
	B	77.48	7.56
	D	73.77	9.31



Ageri denez, gaztelaniazko gaitasun-maila nahiko berdintsua dute hiru taldeek, baina euskarazkoan diferentzia nabarmena ageri da. Elebitasun-maila onena D eremuan ematen da.

6. HIZKUNTZ TESTEN EGOKITASUNA

Test osoaren fidagarritasuna kalkulatzeko bi erdien metodora jo da. Item bakoitiak eta bikoitiak banatu egin dira, eta horrela lortutako bi puntuazioen arteko korrelazio zuzendua da fidagarritasun-indizea (testaren barne-koherentziaren neurria, bestela esateko).

Fidagarritasun-indizeak

		euskara	gaztelania
E R D U A	A	0.90	0.79
	B	0.93	0.73
	D	0.80	0.82

Test hauen baliozkotasuna baieztatzeko (hau da, neurtu nahi dutena ondo neurtzen duten jakiteko), ikasle bakoitzak aurreko ikasturtean lortutako euskara- edo gaztelania-notarekin korrelazionatu ditugu bertako puntuazioak.

Baliozkotasun-indizeak

		euskara	gaztelania
E R D U A	A	0.38	0.56
	B	0.57	0.56
	D	0.50	0.46

Beraz, lortutako fidagarritasun- eta baliozkotasun-neurriak egokiak direla esan daiteke beldurrik gabe.

7. FAKTOREEN ERAGINA: LEHEN ANALISIAK

Aldagai desberdinek ikasleen hizkuntz ezagueran duten eragina aztertzea zen ikerketa honen xede nagusietariko bat. Horretarako bi elementu ditugu oinarri-oinarrian: alde batetik hizkuntz ezagueraren maila, gure kasuan proben puntuazioetan isladatua eta gero, arrazoi funtzionalak direla medio, puntuazio orokor batera murriztua; eta, beste aldetik, ezaguera-maila hori esplikatzeko asmoz jaso diren aldagai soziolinguistiko, pedagogiko eta pertsonal guztiak.

Lehenengo urratsa, beraz, haurren puntuazio orokorra eta aldagai horietariko bakoitzak izan dezakeen erlazioa aztertzea izan da. Horretarako «bariantzaren analisi unibariantea» egin da, hiru ereduetan bina aldiz (euskara-mailaren puntuazioekin behin, eta gaztelaniazkoarekin berriz) egin ere. Ondorioz signifikazio-neurri batzuk lortu dira, «F»-etan isladatzen direnak. Ondoko taula laburbiltzailean, prozedura guzti horretatik eskuratu diren emaitzak ikus daitezke. Signifikazio-maila 0,05etik gorakoa zenean bakarrik kontsideratu dira aldagai horiek signifikatibo edo esanahitsu. Aldagai ez-signifikatiboen Fa ez da, bada, taulan transkribatu.

BARIANTZA-ANALISIA
ALDAGAI SIGNIFIKATIBOEN F-AK

ALDAGAIK	A		B		D	
	EREDUA EUS.	GAZ.	EREDUA EUS.	GAZ.	EREDUA EUS.	GAZ.
IKASTETXE-MOTA		6.3	31.9	6.4		5.9
GELAREN LEHENGU EREDUA	7.7				6.5	
ZONA SOZIOLINGUISTIKOA	6.07		8.1			3.2
GELAKO EUSKALDUN-PORTZENTAIA					7.05	4.0
EUSKARA-ORDUAK	6.23		2.8	4.4	3.05	
SAIO INTENTSIBOA (B ereduan)	—	—	7.2	2.7	—	—
IRAKASLE BAT EDO BI (B ereduan)	—	—			—	—
MATEMATIKA NOLA (B ereduan)	—	—	12.3		—	—
GIZARTE-GAIK NOLA (B ereduan)	—	—	7.05		—	—
IRAKURKETA-IDAZKETA NOLA (B ereduan)	—	—	8.8		—	—
IRAKURRI EUSKARAZ (B ereduan)	—	—	6.4		—	—
LAN EGIN EUSKARAZ (B ereduan)	—	—	8.4		—	—
IRAKASLE EUSKALDUNA	5.5.		8.6	4.3		
IRAKASLEAREN EUSKARA-AGIRIA			6.5			
IRAKASLEAREN ESPERIENTZIA	4.3	10.07	9.5		3.6	
IRAKASLEAREN ITXAROPENA			11.5			
EUSKARA-MAILA IRAKASLEAREN ERITZIZ	6.3	5.3	24.3	16.4	16.4	5.7
EUSKARA-NOTA ESKOLAN	3.8	6.5	23.7	19.7	20.5	7.3
GAZTEL.-MAILA IRAKASLEAREN ERITZIZ	4.9	9.1	10.4	20.0	5.8	14.2
GAZTELANIA-NOTA ESKOLAN	5.4	11.9	13.4	24.0	6.2	13.6
ERRENDIMENDUA ESKOLAN	4.06	6.8	8.3	21.6	12.5	9.6
MAILA SOZIOKULTURALA		2.6	16.8	11.5	6.4	9.9
SEXUA						
AMAREN JATORRIA			14.04			
AITAREN JATORRIA			20.55		6.6	
AMAREN EUSKARA			12.01		15.8	
AITAREN EUSKARA			10.3		11.9	
TXIKITAN AMAREKIKO HIZKUNTZA			9.8		7.6	
TXIKITAN AITAREKIKO HIZKUNTZA			8.8		9.3	
AMAREKIN ORAIN			7.7		5.3	2.9
AITAREKIN ORAIN			9.3		8.2	
ANAI-ARREBEKIN			7.2		8.2	
GURASOEN ARTEAN			4.8		7.8	
JOLAS-LAGUNEKIN			12.1			
IRAKASLEAREKIN			32.04	2.84		
LAGUNEKIN KALEAN			6.04		2.9	3.4
AUZOKOEKIN			3.9		9.1	3.3
GUSTOKO IRAKURKETEN HIZKUNTZA			14.1	4.3	2.8	
TELEBISTA ZEIN HIZKUNTZATAN			7.3	4.03		
PRENTSA EUSKARAZ						
EUSKALDUNA KONTSIDERATU			25.8	6.1		
EUSK.-KLASEEN KOPURUAZ ZER ERITZI	4.25		4.2	4.5		
EUSKARA IKASTEKO ITXAROPENA			7.5	3.3		
EUSKARAZ HITZEGITEA GUSTATZEN?			18.6	15.4		
EUSKARA ENTZUTEA GUSTATZEN?			34.5			
EUSKARA SOINU ITSUSIKOA?			4.1			
EUSKARAZ IRAKURTZEA GUSTATZEN?			11.4			
EUSKARA IKASTEATZ SEGINA?			12.2			
EUSKARAZKO KLASEA ASPERGARRIA?	6.1	6.4				
EUSKARA ZERTAN IKASI EZ?						
EUSKARA HAUR GUZTIEK IKASI BEHAR?			14.4	7.3		
EUSKARA GEHIAGO ERABILI BEHAR?			13.1	9.7		

ALDAGAIK	A EREDUA		B EREDUA		D EREDUA	
	EUS.	GAZ.	EUS.	GAZ.	EUS.	GAZ.
EUSKARA ALFERRIKAKOA?						
EUSKARAREKIKO JARRERA OROKORRA			6.8	3.6		
GAZTELANIAZ HITZEGITEA GUSTATZEN?			5.7			
GAZTELANIA ENTZUTEA GUSTATZEN?				4.5		
GAZTELANIA SOINU ITSUSIKOA?				7.1		3.9
GAZTELANIAZ IRAKURTZEA GUSTATZEN?				12.3		4.6
GAZTELANIA IKASTEATSEGINA?						3.9
GAZTELANIAZKO KLASEA ASPERGARRIA?	4.9					
GAZTELANIA ZERTAN IKASI EZ?		5.7	6.1	4.1		
GAZTELANIA HAUR GUZTIEK IKASI BEHAR?						
GAZTELANIA ERABILI BEHAR?			41.7	10.02	6.4	3.7
GAZTELANIA ALFERRIKAKOA?				8.9		9.1
GAZTELANIAREKIKO JARRERA OROKORRA			4.1	3.4		
ADIMEN-KOEFIZIENTEA		5.2	5.4	12.4	8.9	11.6

Taula horretan ikus daitekeenez, jasotako aldagai gehienak hizkuntz mailarekin lotuak ageri dira talderen batean. Alabaina, batzuk, sexua adibidez, ez dira inon adierazgarriak.

Bestalde, B ereduan aldagai gehienek signifikazio-maila ona erakusten digute. Talde honetako datu gehienek dispersio handia da aberastasun horren karea.

Hurrengo pausoa «ONEWAY» prozedura aplikatzea izan zen, aurreko analisisia finduz eta aldagai nagusien modalitateek beren artean diferentzia signifikatiboak erakusten dituzten aztertuz. Datu guztiak azaltzeak luze joko luke eta, beraz, ikuspegi orokor bat emango da. Horrela:

Ikastetxe-motari dagokionez, aipatzekoa da B ereduan ikastoletako ikasleek lortzen dituztela, euskaraz, puntuazio onenak. Gaztelaniaz, bestalde, ikastolak eta ikastetxe pribatuak parekaturik daude.

Zona soziolinguistikoa. A ereduan zera antzematen da: eskualde erdaldunenetan euskarazko puntuazio bajuagoak izan dituztela ikasleek.

Ikasle euskaldunen portzentaia ikasgelan. D ereduan bakarrik ikusten da aldagai honen eragina, eta gainera muturreko taldeetan: hau da, euskaldun- edo erdaldun-portzentaia oso handia duten taldeetan. Lehenengoetan euskaraz hobeto dabilta, eta gaztelaniaz bajuxeago. Gela oso erdaldunenetan, berriz, alderantzizkoa gertatzen da.

Astean zenbat euskara-ordu. A ereduan gertatzen da bereizgarrien aldagai hau. Euskara asignatura moduan astean zehar 4 edo 5 orduz, edo gehiagoz, izaten dutenek, alegia, astean 2 edo 3 ordu jasotzen dutenek baino gehiago dakite.

Euskarazko ikasjardunaren portzentaia. B ereduan, besteetakoek gainera, emendiozko galdera batzuk egin ziren. Eredu honetan bi hizkuntza erabiltzen dira, jakina denez, ezaguerak transmititzeko: bata ama-hizkuntza,

gaztelania eskuharki; eta bestea eskolan ikasi beharreko hizkuntza, euskara. Euskarari ematen zaion lekuak eta garrantziak badu, analisiak lekuko, eragin esanahitsurik haurrek lortzen duten euskara-mailan. Honela, matematikak gaztelania hutsez jasotzen dituztenek besteek baino hizkuntza-maila bajuagoa ageri dute. Gizarte-gaiak euskaraz ematen dituztenek gaztelaniaz edo ele bitan ikasten dituztenek baino hobeto dakite euskaraz. Irakurketa-idazketa euskaraz egin dutenak hobeto dabilta hizkuntza horretan (baina oso talde txikia dira). Gehiena euskaraz irakurtzen dutenak ere gehiengo baino hobeto daude. Eguneroko ikastorduen % 40 baino gutxiago lan egiten bada euskaraz, emaitzak sigifikatiboki eskasagoak dira. Aldiz, beste aldagai batzuk ez dute eraginik (hizkuntza bakoitzeko irakasle bana edukitzeak, adibidez) edota ez dute modalitateen arteko ordenamendu argirik erakusten (saio intentsiboak, esate baterako).

Irakaslea nolako euskaldun den. B ereduan, irakasle euskaldunzharren ikasleek puntuazio hobeak dituzte euskaraz zein gaztelaniaz. Aldiz, A ereduan euskaldunberrien ikasleak hobeto dabilta euskaraz. Oso kontuz hartu beharreko datua da hau ordea, nolanahi ere, ikasleek irakasle bat baino gehiago izan bait dute OHOk 5. mailara iritsi arte eta, ondorioz, beren hizkuntza-maila ez bait da irakasle bakar baten fruitu.

Irakaslearen esperientzia. 6 urte edo gehiagoz irakaslanean diharduten maisu-maistrek ikasleen euskarazko emaitza onekiko lotura handiagoa ageri dute, B ereduan. Aurreko aldagaiari egindako ohar berbera erantsi behar zaio, halere, oraingo honi ere.

Irakaslearen itxaropena. Ikasleek euskaraz ongi edo oso ongi ikasiko dutela pentsatzen duten irakasleen geletako haurren emaitzak gorago gelditzen dira. Eta, aitzitik, erdipurdi ikasiko dutela diotenenak beherago kokatzen dira.

Errendimendua. Orohar, irakasleen esanetan errendimendu altua duten ikasleek errendimendu normal edo bajukoek baino emaitza hobeak lortu dituzte, bai euskaraz eta bai gaztelaniaz.

Maila soziokulturala. Aldagai honen eragina nabarmena da. Argien B eta D ereduetan agertzen da. Maila altukoek puntuazio hobeak dituzte eta maila bajukoek puntuazio txarragoak.

Gurasoen jaioterria. Euskarari eragiten dio, ez gaztelaniari. B ereduan honako hau agertzen da: kanpotarren seme-alabek desabantaila dutela. D ereduan, bestalde, gipuzkoarren nagusitasuna ageri da.

Gurasoen euskara-maila. Aldagai honek ere B eta D ereduko euskara-ezaguerari argiro eragiten dio. Euskararik ez dakiten gurasoak markaturik agertzen dira: beren haurrak besteenak baino makalago dabilta euskaraz.

Famili barneko hizkuntza. Etxeko harreman-hizkuntza (gurasoekin, anai-arrebekin...) euskara izateak lagundu egiten du haurren euskara-maila hobetzen, B eta D ereduetan. A ereduan, berriz, aldagai hauek ez dute eraginik erakusten, bertan zeuden euskaldun bakarrak ez bait dira kontuan hartu analisisetan.

Eskolako harreman-hizkuntza (jolas-lagunekin, irakaslearekin). Aldagai hauek B ereduan hartzen dute indar handia, beste bi ereduak uniformeagoak bait dira alor honetan. Jolas-lagunekin beti euskaraz ari izaten direnak nabarmenduak ageri dira. Era berean, irakaslearekiko harremana (klasetik kanpora ere) euskaldunagoa den neurrian hobeto dakite hurrek euskaraz.

Kaleko hizkuntza (lagunekin, jendearekin...). Auzoko edo kaleko hizkuntz giroa garrantzizkoa ageri da B eta D ereduetan, euskarazko harremanak lehenetsiz.

Gustoko irakurketak beti erdaraz egiten dituzten ikasleak beherago agertzen dira euskara-mailaren puntuazioetan, baina ez dira hobeak gaztelaniazko puntuazioetan.

Telebista. B ereduan bakarrik agertzen du F esanahitsua aldagai honek. Euskaraz ikusteak hizkuntza honi mesede egiten dio; aitzitik, telebista beti erdaraz ikusteak ez du gaztelania-maila igoten.

Bere burua euskalduntzat jotzea. Bere burua euskalduntzat ez daukatenak (gutxi dira) okerrago dabilta euskaraz, B ereduan.

Euskarazko klase gehiegi dituztela esaten dutenek euskara-maila bajuagoa dute A ereduan, baino oso gutxi dira.

Eskolan euskara gutxi ikasiko dutela uste dutenak, B ereduan, maila bajuagoan dabilta egiazki, nahiz oso kopuru txikia izan.

Euskararekiko jarrera ikertzeko *egia/gezurra* motako hamar itauneko bateria pasatu zaie hurrei (euskaraz hitzegitea gustatzen zaien, edo entzutea, soinu itsusikoa ote den, irakurtzea maite al duten, ikasteko atsegina den, klasea aspergarria den, euskara ikasi behar ote litzatekeen, haur guztiek ikasi beharko luketen, denok gehiago erabili behar al genukeen, alferrikakoa ote den). Item hauen erantzunak B ereduan agertu dira esanguratsuen. Oro har, oso jarrera positiboa adierazi dutenek hizkuntza-maila hobe dute erdipareko jarreretan gelditu direnek baino.

Gaztelaniarekiko jarrera aurrekoa bezalaxe neurtu da. Eta ondorioa ere antzekoa izan da. Batez ere B eta D ereduetan funtzionatzen dute aldagaiok.

Adimen-koefiziente altua duten ikasleek emaitza hobeak lortu dituzte, azkenik, bai euskarazko eta bai gaztelaniazko probetan. A ereduan, ordea, ez da euskararekiko korrelazio hau agertzen; agian, eredu honetan euskararen ezagupen-maila aski bajua delako.

Aipatu beharra dago, baita ere, estudio honetan erabili diren probeekin, trebetasun kognitibo-akademikoak neurtzen direla neurri batean, eta hauek direla hain zuzen ere adimen-koefizientearekin lotuen agertu ohi direnak (J. Cummins-ek CALP-ez definitu duena).

8. ALDAGAIEN MULTZOKATZE-PROZEDURA

Lehenengo bariantza-analisietan nabarmendutako aldagai guztiokin bariantza-analisi multibarianteak egitea izan zen hurrengo urratsa: bai eredu bakoitzean, bai hizkuntza bietan. Horrela, aldagai guztiak batera azterturik batzuk pisua irabaziko zuketean, beste batzuen bizkar.

Analisi finago hori egiteko, ordea, aldagai gehiegitxo zeuden eskueran. Horregatik, natura beretsukoak multzo jakinetan biltzeari ekin zitzaion lehenik. Lehenengo multzokatze hau logikari jarraituz egin zen. Nolanahi ere, sendo baieztatu nahi izan zen multzo horiek benetan aski homogeneoak ote ziren: alegia, beren barneko aldagaiek norabide beretsuan ala kontrakoan jokatzeko zuten aztertu nahi izan zen. Horretarako, berriz, multzokako «kontingentzi taulak» egin ziren eredu eta hizkuntza bakoitzean. Eta, horren ondorioz, multzoak ongi eginak zirela baieztatu ahal izan zen.

Ukitu txiki batzuk egin ostean, multzo bakoitzerako indize bat definitu zen, aldagai solte bakoitzaren modalitateei balore bana emanez. Modu horretan, aldagai-multzo bakoitzak aldagai bakar bat bailitzan jokatu ahal izango zukeen. Multzo horiek banaka hartuta, ondoren, bariantza-analisisia egin zen berriro. Hiru gauza ikusten ziren gutxienez horrela: multzo osoaren F_a , adagai bakoitzaren F_a eta aldagai horiek bateratsu jokatzeko zuten. Datu guzti horiek ikusita beste aldaketa txikiren bat egin zen multzoetan, eta azken analisietarako prest utzi ziren datuak: esan nahi bait da, aldagai esanguratsuenak bakarrik aukeratuta eta horiek multzo homogeneotan integraturik moldatu zirela datu hauek.

9. FAKTOREEN ERAGINA: AZKEN ANALISIAK

Alde batetik aurreko puntuan deskribatutako multzokatze-prozedura horretatik sortu ziren multzoak hartuaz, eta bestetik eredu bakoitzeko hizkuntz puntuazioak harturik, azken bariantza-analisiak egiteari ekin zitzaion. Lehenengoak (aldagai-multzoak) aldagai independenteak dira, gertaera bat esplikatut behar dutenak; eta bigarrenak (puntuazioak), aldiz, aldagai dependienteak (hau da, esplikatut behar direnak).

Azterketa honek jaso ahal izan dituen datuen arabera ondoko aldagai-multzo hauek dira eskolako haurren hizkuntz mailan eragiten dutenak. Honek ez du esan nahi, jakina, beste elementu eragingarriak ez denik. Badira, izan ere, guzti horretan ezin ukatuzko eragina duten bestelako aldagaiak: irakasleen gaitasuna, metodologiak, ikastetxearen antolakuntza, norberaren eta inguruko motibazio sakonak etab., beste hainbaten artean. Alabaina, era honetako aldagaiak ezin jaso izan dira. Beste hainbesteko mugak ipini behar zaizkio hizkuntz mailaren neurketari ere. Eskola-munduan apropos samarrak izan daitezkeen tresna batzuez eta eskolako testuinguruan erabili ohi den hizkuntza-mota jakin bat neurtu da. Hortaz, neurri hori hizkuntz gaitasun orokorra dela esatea gehiegitxo izan daiteke, ez bait dakigu zehazki beste komunikazio-egoera batean haur horietariko bakoitza nola molda zitekeen (esate baterako lagunekin, gurasoekin etab.).

Beraz, beharrezko ohar hauek eginda, ikus ditzagun emaitzak.

EUSKARA-MAILAN ERAGITEN DUTEN FAKTOREAK

Euskara-mailarekin zerikusi handiena erakutsi duten aldagai-multzoak ondokoak dira, ereduz eredu:

A EREDUA

1) **Irakaslea** ($F = 11.1$)


Aldagai bakarreko «multzoa» dugu hau. Irakaslearen euskaltasun-moldea hartzen da hemen kontuan. Datu bitxi samarra aurkitu da, ordea, lehen esan bezala (ikus 32. or.): puntuaziorik onenak irakasle euskaldunberriekin lotuta bait daude, euskaldunzahar eta euskara irakasten ari direnekikoen aurretik. Halere, berriro aipatu behar da euskalduntzearen arduraz ez dela urte jakin bateko irakaslearen fruitu.

2) **Haurraren gaitasun pertsonalak** ($F = 9.12$)

Multzo honetan garrantzizkoa izan da haurrak errendimendu eskolar ona eta gaztelaniazko puntuazio altua izatea.

3) **Ikastetxea** ($F = 7.97$)

Asteazken lau ordu edo gehiagoz euskara irakasten duten ikastetxeek, eta B eredutik Ara pasatu diren gelek, abantaila dute A ereduan.



B EREDUA

1) Irakaslea ($F = 8.96$)


Multzo honetan pisu handia ageri dute irakaslearekin euskaraz egiteak, irakasleak haurrek euskara ikasiko duten itxaropen izateak eta irakaslea bera euskaldunzaharra izateak. Atzerago gelditzen dira, aldiz, beste aldagai batzuk: irakaslanean daraman urte-kopurua (7tik gora), eta euskarazko gaitasun-agiririk izatea.

2) Haurren gaitasun pertsonalak ($F = 5.83$)

Euskara-ezaguerarekin oso lotuta daude gaztelaniaz ateratako puntuazioa, errendimendu eskolarra eta adimen-koefizientea.

3) Gaztelaniarekiko jarrera ($F = 3.42$)

Harrigarri samarra badirudi ere gaztelaniarekiko jarrerak lotura estua agertu du euskarazko puntuazioekin. Hala ere ez da dirudien bezain harrigarria. Euskarazko puntuazio onenak atera dituztenek ez dute uste, esate baterako, denok gaztelaniaz gehiago hitzegin behar genukeenik. Azken finean, euskararen aldeko jarreratzat jo dezakegu hau. Multzo honetan sartzen dira beste bi aldagai ere: gaztelaniaz hitzegitea ez gustatzea, eta zertan ikasi ez dagoela uste izatea.



4) **Maila soziokulturala** ($F = 3.3$)

Gogoan izan bedi irakaslea izan zela ikasle bakoitzaren familiaren maila soziokulturalari buruzko eritzia eman zuena. Eritzi horrek zuzen-zuzen jarraitu dio B ereduko haur hauen euskarazko ezaguera-mailari: zenbat eta maila soziokultural altuagoa izan, euskarazko emaitzak ere hainbat hobeak izan dira.

5) **Gustoak** ($F = 2.96$)

Gustoko irakurketen artean euskarazkoak ere izateak eta euskarazko telebista ikusteak duten garrantziaren ispilu da, bestalde, azken aldagai-multzo hau.


D EREDUA

1) Haurraren gaitasun pertsonalak ($F = 9.89$)

Gaztelaniaz ere puntuazio onak ateratzea eta errendimendu onekoa izatea lotuta daude euskarazko puntuazio onekin. Adimen-koefizientea ere multzo honen barnean sartuta dago.

2) Etxeko hizkuntza ($F = 3.52$)


Multzo honetan familiako hizkuntz harremanak isladatu nahi izan dira: gurasoek euskaraz jakitea, anai-arrebekin beti euskaraz aritzea, gurasoekin euskaraz aritzea, gurasoen artean euskaraz egitea.



GAZTELANIA-MAILAN ERAGITEN DUTEN FAKTOREAK

Gaztelaniak gizartean duen bizi-indarra oro har euskararena baino askoz hobe izanik, hiritar gehienek hizkuntza honetaz ageri duten ezaguera-maila zabalagoa eta sendoagoa denik ezin uka. Baieztapen horrek eskolarako ere balio du. Horregatik, gaztelaniaren ezaguera-maila desberdinen arrazoiak bilatzen saiatzerakoan aldagaien banakera desberdin batekin topo egiten da, esplikatutako behar diren ezaguera-mailen arteko diferentziak ere ez bait dira euskararen kasuan bezain handiak.

A EREDUA



1) Haurren gaitasun pertsonalak ($F = 6.11$)

Euskarazko puntuazioak, errendimenduak eta adimen-koefizienteak osatzen duten multzo honek erakusten du korrelazio handiena gaztelaniazko puntuazioekin.

2) Gaztelaniazko jarrera ($F = 6.04$)

Multzo honetan galdera bakarra sartu da. Gaztelania zertan ikasi ez dagoela dioten sujetuak (oso gutxi dira) oso puntuazio bajeetan dabilta.

3) **Euskararekiko jarrera** ($F = 6.11$)

Euskarazko klasea aspergarria dela diotenek gaztelaniazko maila txarra dute. Fenomeno honetan hizkuntzekiko zaletasun eza suma daiteke agian; edota, are gehiago, eskolarekikoa.

4) **Ikastetxea** ($F = 4.09$)

Ikastetxe pribatuetan puntuazio hobeak atera dira publikoetan baino. A ereduko ikastolarik ez dago.


B EREDUA

1) Haurren gaitasun pertsonalak ($F = 23.4$)

Euskarazko puntuazioa, errendimendu eskolarra eta adimen-koefizientea onak diren neurrian gaztelaniazko puntuazioak ere onak izango direla espero zitekeen, eta, gertatu ere, kasu honetan horrela gertatu da.

2) Gaztelaniarekiko jarrera ($F = 6.52$)

B ereduko ikasle gehienek oso jarrera ona dute gaztelaniaren aurrean: gaztelania entzutea gustatzen zaie, ez dute uste soinu itsusiko hizkuntza denik, gaztelania ikasi behar dela uste dute, balio duela pentsatzen dute eta gaztelaniazko liburuak irakurtzea gustatzen zaie. Azken aldagai hau bereziki garrantzizkoa da multzo honetan. Baina, bestalde, ez dute uste gaztelaniaz gehiago hitzegin behar denik eta, hain zuzen, uste hau ez doa hizkuntzaren kontra: aitzitik, gaztelaniazko puntuazio onekin korrelazionatua dago.



3) Maila soziokulturala ($F = 3.49$)

Maila soziokultural baxuko familietakoek puntuazio eskasagoak dituzte.

D EREDUA

1) Etxeko hizkuntza ($F = 22.17$)

Etxeko hizkuntzaren inguruan egindako galdera guztien artean haurrak amarekin hitzegiten duena izan da esanguratsuena, D ereduan eta gaztelaniari dagokionez; eta, beraz, aldagai hori bakarrik sartu da «multzo» honetan. Amarekin beti edo gehienetan euskaraz hitzegiten dutenak besteak baino beheraxeago gelditzen dira gaztelaniazko testetan.

2) Kaleko hizkuntza ($F = 8.15$)


Kaleko lagunekin eta auzoko jendearekin halako euskal giro batean bizi direnak gaztelaniazko bizigiroan murgildurik daudenak baino beheraxeago ageri dira puntuazioetan.

3) Ikastetxea ($F = 3.11$)

Ikastetxe-motak eta ikasgelako ikasle euskaldunen kopuruak osatzen dute multzo hau. Ia ikasle guztiak erdaldunak diren geletan gaztelania-maila hobe dago. Era berean, ikastetxe pribatuetakoa eta ikastoletako gaztelaniazko puntuazioak herri-ikastetxeetakoena gainetik gelditzen dira. Ez da ahanzi behar D eredu herri-ikastetxeak herri txiki euskaldunetan kokatzen direla askotan.

4) Gaztelaniarekiko jarrera ($F = 2.69$)

D eredu honetan Bn gertatzen den gauza berdintsua jazotzen da. Puntuazio onak jarrera onekin lotuta daude (hitzegitea gustatzea, soinu



itsusikoa ez kontsideratzea, irakurtzea gustatzea, ikastea atsegintzat jotzea). Kontrako jarrera, berriz, esate baterako gaztelaniak ezertarako balio ez duela esatea puntuazio txarrekin lotzen da. Hala ere, gaztelania denok gehiago erabili behar dugula ukatzea ezin dugu jarrera txartzat hartu. Jarrera errealista da, azken finean, hizkuntza behartsuena euskara dela aitortzen bait du. Honela posizionatzen direnek, hain zuzen, gaztelaniazko puntuazio onak ateratzen dituzte.

5) **Gaitasun pertsonalak** ($F = 2.47$)

Azkenik, gaitasun pertsonalen multzoan euskarazko puntuazioak, errendimendua eta adimen-koefiziente sartzan dira. Hiru aldagai horien espnente onek gaztelaniazko puntuazio ona dakarte berekin.

LABURPEN GISA

Laburbilduz, euskarazko emaitzetan eragiten duten aldagaiei dago-kienez bada hiru ereduetan gauza aipagarriak.

A ereduan, eskola-alorreko faktoreen eragin-indarra aipatu behar da (irakaslea, euskara zenbat orduz ikasten den,...) gaitasun pertsonalekin batera. Irakasteredu honetan, EIFE 1ean baino argigarriagoa gertatu da oraingoa azterketa.

B ereduan ere irakaslearen inguruko faktoreek hartzen dute nagusitasuna: bere hizkuntz portaerak, batipat. Euskara harreman-hizkuntza moduan erabiltzeko komenentzia argi dago, eta lehendik ere aski eskueran zeuden datuak azpimarratzera dator (EIFE 1, PIR 5). Gaitasun pertsonalez aparte, familiaren maila soziokulturalak duen eragina argi agertzen da (EIFE 1ean ez zen horrelako daturik jaso).

D ereduan, azkenik, garbi agertzen da EIFE 1ean ere ikusten zen hura: gaitasun pertsonalek eta etxeko hizkuntzak duten lehentasuna, gainerako faktoreen aurretik.

Gaztelaniaren alorrera joaz, gogorarazi behar da hizkuntza normalizatu baten aurrean gaudela eta ikasleen arteko diferentzia txikiagoak esplikatzea behar direla.

A ereduan hainbat faktorek eragiten du gaztelaniaren ezagueran; baina gaitasun pertsonalak agertzen dira lehenik, hizkuntzekiko jarrerak ondotik darraizkielarik.

B ereduan ere nabaria da gaitasun pertsonalen eragina, hizkuntzekiko jarrerak eta maila soziokulturalak ñabardura interesgarriak erasten dituztelarik.

D ereduan, bukatzeko, familiako eta inguruko hizkuntz giroak dira diferentzia handien iturburuak.

10. AZALPEN BATERABILDUA

Egitura zurrun-egonkorra baino areago ibilera lasterrean antzaldatzen ari den gizarte-alorra osatzen du gaur egun, gorago esan denez, Euskal Autonomi Elkarteko irakas-sistemak. Urtetik urtera bere eramoldea aldatzen eta berritzen ari da, erdara hutsean (edo ia hutsean) oinarritutako erakunde bat izatetik luze-zabaleko elebitasun-formula batera igarotzeko. Behin-behineko datuak dira beraz, honegatik bestegatik ez balitz ere, euskal eskola-munduak eskain ditzakeen hizkuntz gaitasunezko emaitza-azalpenok: tentuz eta soseguz aztertu eta ausnartzeko egokiagoak, nolana ere, puntatik puntarako ondorio praktikoko oro-hartzaileak aldarrikatzeko baino. Garrantzitsua da, horrexegatik ere, EIFE 2 azterketaldi hau luzera begirako saiakuntza osatu baten barnean kokatzea: EIFE 1ekin hasiera eman zitzaion eta dagoeneko, azalpen-liburuska hau argitara emateko orduan, EIFE 3ren ekinaldian murgildurik dagoen ebaluazio-programa zabalago baten barruan situatzea komeni da alegia.

Etengabeko aldakuntza horiek gertatzen ari direlarik ere zentzugabea litzateke ordea, hainbat aldetatik begiratuaz, behin-behinekotasun horren ondorioz EIFE 2ren (berdin lehengo EIFE 1en eta ondorengo EIFE 3ren) emaitzak guttiestea eta behar den bezain aintzakotzat ez hartzea. Trantsizio-egoera bat adieraz dezaketela egia izanik ere une jakin bateko egoera zehatza adierazten bait digute emaitzok.

Eta, gainera, dagoeneko eskueran ditugun datuen arabera ez dirudi EIFEtik jasotako emaitzok (oinarri-oinarrizko datuok, bereziki) hain probisionalak eta behin-behinekoak direnik: hiru urte lehenago egindako EIFE 1 azterlanarekin konparatuz, izan ere, zera ikusten da: batean zein bestean antzeko eragin-indarrez ageri direla hiru irakasteredu elebidunen oinergituzko hainbat joera, baldintzapen eta ezaugarri.

Egokia dirudi, ondorioz, itxuraz unean uneko balio-indarra ondotxo gainditzeko duten oinarritzko joera, baldintzapen eta ezaugarri horiez hitz bat edo beste esatea. Ondoko hauek dira, hain zuzen, zertzelada nagusi horietariko zenbait.

I. IRAKASTEREDUEN BILAKAERA

EIFE 2ko datuak EIFE 1ekoekin alderatuz ondoko emaitza hauek eskuratzen dira:

A ereduaren bilakaera: A ereduaren ez dago, itxuraz, aldaketa nabarmenik. Gaztelaniaz lehen bezain ondo moldatzeaz gainera lehen bezain euskara-maila bajuarekin ageri dira oraingoan ere, banakako salbuespenak salbu, A ereduko eskola-umeak. Hots, 1983-84ean OHO 5eko A

ereduan neurtu ziren ikasleak 1986-87an kurtso eta eredu berean neurtu direnekin parekatuz oso antzeko euskara-maila ageri dute ikasle-talde biek: maila nabarmenki apala, nolanahi ere.

B ereduaren bilakaera: Eredu honi dagokionez ezin da, A eta D ereduetan bezala, lehengo eta oraingo OHO 5eko ikasle-taldeen konparaziorik egin: 1983-84ean B eredia ez zen oraindik OHO 5era iritsia.

Badago, ordea, bestelako konparazio-biderik. Orain OHO 5ean kontuan hartu diren B ereduko ikasle-taldeak (salbuespen bakanak salbu) 1983-84ean OHO 2an neurtu ziren ikasle-multzo berberak direla gogoan izanik, izan ere, bidezkoa dirudi ikasle-talde horiek hiru urteko epealdian beren gaitasun-mailan nolako bilakaera izan duten ikuskatzea. Ikuskapen horretatik emaitza argia eskuratzen da: era ohargarrian igo da, 1983-84 ikasturtetik 1986-87ra, B ereduko ikasle horien euskara-maila. Beren puntuazioak, hain zuzen, A ereduko ikasleen espektrotik D eredukoenerantz lerratzen ari dira.

D ereduaren bilakaera: eredu honi dagokionez ez da, EIFE 1etik EIFE 2ra, desberdintasun ohargarririk gertatu. Emaitza zehatz-konkretuei dagokionez egia da, D eredu honetan, EIFE 1eko OHO 5eko ikasleetatik EIFE 2ko OHO 5eko ikasleotara puntuazioa zertxobait hobetu egin dela. Ikasle-multzo desberdinak dira dena den azterketaldi batekoak eta beste-koak, eta ez dirudi jasotako diferentzia mugatu horretatik ondorio sendoe-giak atera daitezkeenik.

II. GAZTELANIA- ETA EUSKARA-MAILEN ARTEKO DESOREKA

Gaztelaniazko gaitasun-maila bateratsua, eta aski egokia, ageri dute irakasteredu guztietako ikasleek.

Euskarazko gaitasun-mailan, aldiz, diferentzia handiak daude eredu batetik bestera. Horrela:

* D ereduko haurrek bakarrik ageri dute hizkuntza bietan pareko gaitasun-maila. Irakasteredu honetako eskola-umeak dira ondorioz, bere batezbestekoan, elebidun osatuenak.

* Hizkuntz egoera desorekatuena, aldiz, A irakastereduko ikasleek ageri dute.

* B ereduari dagokionez, azkenik, EIFE 2 galdeketak kontuan harturiko eskola-umeak bigarren hizkuntza hainbatean eskuratzen ari direla nabari da. Hutsune ohargarriak ageri dituzte oraindik, dena den, beren euskarazko gaitasun-mailan.

Ez da ahaztu behar, dena dela, irakastereduek beraiek eragin-indar mugatua dutela goian aipaturiko emaitzotan: D ereduko haur gehienak etxetik euskaldun dira, gutxi edo asko. A eta B ereduetakoak, aldiz, nagusiki etxetik erdaldun.

III. IRAKASKUNTZA ELEBIDUNAK EZ DIO GAZTELANIAZKO HIZKUNTZ GAITASUNARI KALTE EGITEN

Haur erdaldunak txikitandik bizi duen ingurugiroa (etxea, jolas-lagunak, auzoa, komunikabideak,...) aski erdalduna da gehien-gehienetan. Eta, ondorioz, bere ama-hizkuntzaz behar adinbateko trebeziak jabetzeko *input* ugari eta emankorra jaso ohi du gehienetan. Hori dela-eta, eskolaratzean bertako ikastorduen zati on batez euskaraz jarduteak ez dio bere gaztelaniazko gaitasun-mailari kalte egiten: pareko emaitzak ageri dituzte, praktikan, eskola-ume batzuek (A eredukoek, alegia) eta besteek (Bkoek).

Are gehiago: etxetik euskaldun diren eta irakaskuntza euskaraz (hots, D ereduan) jasotzen duten ikasleek ere erraz eskuratzen dute, adin bereko haur erdaldunek baino erritmo pausatuagoz bada ere, beren gaztelaniazko gaitasun-maila. OHO 5ean aski hurbil daude D ereduko ikasle horietariko gehienak, jadanik, A eta B ereduetakoen mailatik: hots, hiztun elebidun aktiboak bihurtzen ari dira edota jadanik bihurturik daude etxetik euskaldun ziren ikasle horiek. Kontrako elebiduntze-isuria da, aitzitik, hainbat kasutan garantizatzen ez dena.

IV. ZENBAIT FAKTORE AIPAGARRI

Oraindaino aipaturiko gertakari nagusi horiezaz gainera badira, nolana ere, baterabilduzko ikustapen batean kontuan hartu beharreko beste hainbat ezaugarri. Hona hemen, hitz gutxitan esanik, ustez adierazgarrienak liratekeenak.

IV.1. Bigarren hizkuntzaren presentzia: zenbatekoa eta nolakoa

A eta B ereduetako ikasleentzat, etxetik (eta, gehienetan, bizigiroaz) erdaldun izan ohi direnez, berariazko garrantzia izaten du kasuan kasuko eskolaren edo ikaslerroaren antolakera elebidunak:

A ereduan bertan, eta bereziki Bn, alde handia dago leku batetik bestera; eta honek eragin zuzena du ikasleek eskuratzen duten euskarazko gaitasun-mailan.

Bi dira, itxura osoz, ikas-antolamenduzko aldagai nagusienetakoak:

a) Asteroko euskal *input*-a. Hots, astean zehar eskolan jasotzen dituzten ikastordu guztietatik zenbat dauden euskararekin lotuak: astean zenbat orduz jarduten duten, alegia, euskara edo euskaraz ikasten.

b) Euskal *input* horren ikasgai- ala ikaspide-izaera. Ez da berdin, itxuraz, ikasle erdaldunen euskararekiko kontaktua hizkuntza hori asignatura soil izatera mugatzea ala, horrezaz gainera, zenbait asignatura euska-

raz ikasi beharra izatea eta, ondorioz, ikaslea bere euskal gaitasun(txo) hori jardungai konkretu desberdinetan aplikatu beharrean gertatzea. Euskara ikasgai izateaz gainera ikaspide den egoeretan euskarazko gaitasun-maila hobeak eskuratzera iristen ari dira, azterketaren emaitzen arabera, OHO 5eko ikasleak.

Etiket euskaldun diren D ereduko ikasleen artean, aldiz, egoera normaleko ama-hizkuntza duten ikasleen arteko faktore zenbait (eskola-errendimendua, adimen-koefizientea,...) garrantzitsuago dira itxuraz.

IV.2. Ikasgelaz kanpoko harreman-hizkuntzaren eragina

Haurrari eskolak berak, ikasgela barneko jarduera formalizatuaz, ekar diezaiokeen hizkuntzazko gaitasun-indartzea bezain garrantzitsua da ikasgelaz eta are ikastetxeaz kanpoko mintzajardunaren eragina. Bere irakasle eta ikaskideekiko harreman-hizkuntza euskara izatea (jolas-orduetan, eskolaz kanpoko ekintzetan,...) garrantzitsua gertatzen da bere gaitasun-maila era ohargarri batean jaso edota sendotu ahal izateko. Eskolak oro har, eta banakako irakasleak bereziki, bere horretan kontuan hartzen eta berariaz baloratzen jakin behar du faktore honen eragin-indarra.

IV.3. Etxeko euskal-giroaren garrantzia

Etiket datorkio haurrari, normalean, harreman-hizkuntza batean ala bestean jarduteko trebezia eta joera. Eskola-umearen aita-amak (edota bietariko bat, bederen) euskaldun diren kasuetan erabakiorra da haurrak horiekin euskaraz jardutea. Etxeko euskal giroaren eragina eta oihartzuna ezin ordezkaturik da neurri batean: han ikasten du haurrak bere bizi-ingurunearekin harremanetan sartzen, eta eskolak sendotu, indartu eta hobetu egin ohi du halakoetan haur horren gaitasun-maila.

V. EIFE 2REN LAN-METODOLOGIA ETA ONDORIO-AZALPENEN NONDIK NORAKOA

Hezkuntza elebidunaz eta hartatik jasotzen diren gaitasun-mailez mundu zabalean gaur egun egiten den azterlan askok darabilen lan-metodologia eta azterpidea bete-betean onartu eta erabili izan da, hainbat zertzeladatan, EIFE 2 egiterakoan. Bateragarria izan nahi izan du, funtsean, azterlan horiekin: aldagaien trataeraz, multzokatzeaz, erregresio-azterketaz eta bariantzaren analisisiaz isolatu dira, horrela, eragin-indar handieneko faktoreak. Emaitzetan ere hainbat zertzelada ageri du, EIFE 2 honek, elebitasun-giroko hainbat herrialdetan lehen eta orain egindako ikerlan askoren ondorioekin bat datorrena. Are gehiago: munduan zehar

han-hemen kokaturik dauden beste hiztun-herri horietan balioespen sendoa jasotako hainbat erizpide nagusik gurean ere berdintsu balio duela frogatzen ari da. Euskal herriaren eta euskararen hainbat eta hainbat baldintza zehatz-konkretu aski paregabe izanik ere bertako egoera eta joerak, baldintzapenak eta emaitzak hain arraro eta bestelakoak ez direla ikusten da bertatik: bertako irakastereduen antolakera atzerriko ikasprograma elebidunen egitura desberdinekin konparatuz batak eta besteek beren hainbat emaitza eta aldagaietan arau beretsuen ildotik dihardutela ageri da.

ERASKINAK

EIFE 2-N ERABILI DEN METODOLOGIA ESTATISTIKOA

Ikerlan honek helburu nagusi bat izan du, gorago esan denez: hizkuntza-maila neurtzen duten aldagai desberdinetan zein faktorek eragiten duen, eta zenbateko eragin-indarrez, zehaztea.

Bilaketa honekin, berarizko laguntza eskaini nahi zaio hezkuntz politikari, lehentasunez zein arlori ekin beharko litzaiokeen iradokiz edota zenbait neurriren emaitzaz zer espero daitekeenaz iragarpen funtsatuak egiteko elementuak eskainiz.

Konkretuki, ikasleen ezaugarri edo faktore-multzo baten bidez A, B eta D eredueta haurrek lortutako euskara- eta gaztelania-puntuazioak esplikatzen dira. Faktore hauek ikasleen famili ezaugarriak, irakasleorenak, inguru-giroarenak...e.a. dira.

Hala ere faktore-kopuru handi bat jaso denez gero (66 aldagai, bider 4 modalitate gutxi gora-behera) ez da posible fenomeno bere osotasunean eta aldi berean ikertzea. Hori dela eta, honela jokatu da:

1. FAKTORE BAKOITZAK AZALDU BEHAR DIREN ALDAGAIEKIN DUEN LOTURA AZTERTZEA

Faktore bakoitzarentzat, banan bana, bariantzaren analisi bidebakarra egin da (SPSS-Xen ONEWAY delakoa, hain zuzen). Honek aldagaiaren eta faktorearen arteko loturaren garrantzia azaldu ohi du (F-aren signifikaizio-maila, alegia) eta loturaren nondik norakoa, orobat faktorearen modalitateen eragin-indarra erantsiz.

Guzti honek zera azaldu du: zein faktore diren, hasiera batean, notak esplikatzen egokiak; eta, bide batez, loturaren direkzioa aztertaldaren lan-hipotesiekin bat datorren ala ez. Halaber, faktore baten modalitateak beraien artean signifikatiboki desberdinak ez direnean, batu egingo dira ONEWAYren informazioa erabiliz.

2. FAKTORE-MULTZOEK BANAN BANA DUTEN ERAGINAREN ESTUDIOA: FAMILI GIROA, GAITASUN PERTSONALAK, IRAKASLEEN EZAUGARRIAK...e.a.

Elkarrekiko lotura ageri duten faktoreak bildu egin dira beren arteko kidetasunaren arabera, faktore-multzoak sortuz. Talde bakoitzaren barruan analisi multibariante bat egiten da (ANOVA), talde bakoitzeko faktoreak aldagai esplikatibo gisa hartuz.

Aipatutako analisiak zera adierazten du, partez bederen: multzo honek gertaeraren esplikazioan duen inportantzia. Honela, eta lehen saio gisa, taldeen arteko ranking bat egin daiteke, bere garrantziaren arabera.

Faktoreen kidetasuna ikusirik, ez da hain harrigarria ere multikolinealitate edo lerrokidetasun anitzeko efektu batzuk agertzea: faktore baten eragina beste batenarekin nahasten da (ez da batukorra), biak gauza beretsua isladatzen ari dira-eta (esate baterako amarekiko hizkuntza, anai-arrebekikoa...). Hauek, beraz, faktore bakar batean bil daitezke (bien informazioa bilduko duen faktore batean alegia).

Helburu honekin, talde bakoitzaren barruko faktore guztien arteko kontingentzi taulak egin dira (CROSSTAB). Horrela, faktoreen loturak eta modalitateen zentzua kontuan hartuz, talde bakoitzerako faktore **bakar** bat eraiki da, ANOVAREN araberrako modalitate adierazgarriak bilduz bertan.

3. DIMENTSIO BERRIEN (BILDUTAKOEN) ESTUDIOA, DENAK BATERA, FAKTOREEN BIDEZ IKUSIRIK

Eredu Lineal Orokorren bitartez egin da azterlanaren saioaldi hau. Gure kasuan ANOVA prozedura erabili da (SPSS-X), interakzio eta kobariablerik gabe.

Kobariantza-analisia baztertzea aukeratu zen, *Eusnota* edo *Gaznota* aldagaia kobariable edo aldagai-kide zelarik, analisiaren helbururik printzipalena hori ez zelako eta beste faktoreen portaeran nahiz ereduaren esplikazio-ahalmenean distortsio adierazgarriarik sortzen ez zuelako.

Prozedurak, bere "output-"etan, honako informazio hau eskaintzen du:

- * Garrantzi orokorra, bere F globala eta signifkazio-maila eta determinazio-koefizientea (R^2).

- * Bariantza-analisiaren ohizko koadroa.

- * Faktore bakoitzaren F_a eta esanahi-maila, hala nola, azaldutako karratuen batuketan (F_a , jakina denez, beronen garrantzia erlatiboa besterik ez da, askatasun-graduez zuzendurik) gertatu den gehikuntza.

- * Erregresio estandarizatuaren koefizientea (edo β^2) ere ematen du beronek.

EIFE 2 IKERLANAREN OINARRI INFORMATIKOA

1. ERABILITAKO ORDENADORE ETA PROGRAMAK

Ikerlana egiteko erabili diren bi ordenadoreetako sistema eragileen utilitateez aparte, honako programa hauekin lan egin da:

<u>ORDENADOREA</u>	<u>PROGRAMAK</u>
MINI 6/ HONEYWELL BULL	P-STAT (Datu-trataera eta analisi estatistikorako programa integratua). BISEP1 (Itemen analisirako FORTRAN programa). PD06002 (Datuen aukeraketa eta fusiorako FORTRAN programa).
UNISYS/1100	SPSS (Datuen trataera eta analisi estatistikorako programa integratua).

2. PROZESUEN DESKRIBAPENA

2.1. Grabazioa eta balidazioa

Alde batetik ikasleen erantzun-orriak grabatu dira eta bestetik irakasleenak, azken hauetan ikasgeletako informazioa agertzen delarik. Bi erantzun-orriak gela-kodearen bidez erlazionatzen dira; era honetan, jakina, ez da ikasgelaren informazioa ikasleen erantzun-orri bakoitzean errepikatu beharrik izan.

Datu-balidaziorako lehen prozesuetan, bestalde, erantzun-orriak aparte tratatzen dira. Aldagai guztiek onartutako baloreak dituzten ala ez konprobatzen da bertan, erantzun-orriaren definizioaren arabera. Aldi berean, kontrol logikoak ezartzen dira: erantzunaren beharra, adibidez, zenbait galderatan, beste baten erantzunaren arabera...e.a. Prozesu honen bidez, onetsitako erantzun-orrien fitxategiak lortzen dira eta, bide batez, erroreak dituzten erantzun-orrien zerrendak, bakoitzean detektatu den hutsunea agertzen delarik.

Hurrengo prozesu batean, ikasle eta irakasleen fitxategi zuzenak batzen dira, fitxategi bakar bat lortuz.

Balidazioak, P-STAT programaz egin dira oso-osorik.

2.2. Maiztasunak

Lehen estudio baterako, inkesta guztien aldagaien maiztasunak ateratzen dira, ereduka (A, B, D). P-STAT-en "FREQ" instrukzioa erabiltzen da.

2.3. Itemen analisisia

FORTTRAN programa baten bidez, BISEP1-ek prozesatuko duen fitxategi bat sortzen da. Programa hau hizkuntz probetako itemen portaera eta testaren fidagarritasuna analisatzeko egiten da.

2.4. SPSS fitxategiak sortzea

Utilitate-programa batzuen bidez, MINI6 ordenadoretik, UNISYS/1100-era pasatu dira fitxategiak. SPSS-az fitxategi bakar bat sortzen da, ondorengo analisisetan erabiltzeko asmoz.

2.5. Analisi estatistikoa

Goian aipaturiko fitxategitik abiatuta, beste fitxategi berri bat sortu zen, aurrekoaren aldagaiez gain aldagai berriak ere badituena (birkodifikazioak, bilketak, kalkuluak...e.a.).

Azken fitxategi horrekin egin dira aurretik aipatu diren analisi estatistiko nagusiak.